

Una biblioteca pública de calidad como garante del progreso ciudadano *

En estos tiempos de crisis económica y ética, en vísperas de unas elecciones, en las que los partidos políticos reflexionan sobre sus principios, trabajan en la redacción de los programas y reconsideran sus prioridades, los bibliotecarios queremos recordarles la importancia de una biblioteca pública de calidad, como garante del progreso individual y de la comunidad en su conjunto.

Queda lejos de nuestra intención redactar un nuevo manifiesto, establecer nuevas pautas, proclamar novedosas declaraciones o añadir otro informe a los innumerables ya existentes, redactados por insignes comités europeos e internacionales. La apelación a la UNESCO, la IFLA, o a diferentes comités expertos, es una constante en el frontispicio de toda la legislación bibliotecaria de nuestro país. Pero solo con buenas intenciones no se consiguen los objetivos; hay que consignar los recursos adecuados y ponerlos a trabajar.

Desde nuestra experiencia profesional, adquirida en el quehacer cotidiano, constatamos las siguientes aportaciones de las bibliotecas públicas:

- Como instituciones culturales, promueven y reivindican la lectura como el medio básico y fundamental para el desarrollo y promoción de las personas.
- Son el gran nivelador social porque prestan servicios a ciudadanos de toda condición, origen, edad, nivel cultural o ingresos económicos. Muchas personas encuentran gratuitamente en las bibliotecas recursos que no podrían pagar y que son necesarios para aprender, seguir formándose, conseguir un trabajo o progresar en el mismo.
- Las bibliotecas públicas son integradoras y construyen comunidad porque acercan a personas de diferentes edades, etnias o procedencias, distintas sensibilidades culturales y lingüísticas, favoreciendo el intercambio, aprendizaje y ayuda mutuos. Singularmente, las bibliotecas públicas brindan apoyo a personas de la tercera edad, a los inmigrantes y otras personas con necesidades especiales.
- Ayudan al ciudadano porque le aseguran el acceso a la información, tanto impresa como virtual, le habilitan para discernir la que le resulta útil a sus intereses, y le ayuda a adquirir nuevos conocimientos, favoreciendo su fortalecimiento individual y su espíritu crítico.
- Facilitan el acceso a las nuevas tecnologías de la información y la comunicación, y colaboran en la alfabetización informacional y digital.

7

Las bibliotecas públicas también ayudan a preservar el patrimonio cultural de cada pueblo o ciudad de nuestra comunidad, recopilando información, digitalizándola, preservando

*Texto redactado por Juana Iturralde Sola, Biblioteca Pública de Pamplona-Txantrea.

creaciones de los naturales del pueblo o documentos históricos, que nos ayudan a comprender mejor nuestro pasado, presente y futuro.

Resumiendo nuestra realidad en una formulación nada pomposa, nuestras bibliotecas públicas son el espacio físico donde los bibliotecarios trabajamos como facilitadores del acceso a la información, al conocimiento y a la formación permanente; fomentamos la participación mediante los clubes de lectura, los talleres de poesía o teatro, cursos no reglados, mercadillos, etc.; incentivamos la creación mediante la organización de certámenes, exposiciones y celebraciones, y tratamos de responder también a quienes van buscando calor humano en un espacio de convivencia.

El desarrollo tecnológico permanente y las necesidades sociales cambiantes constituyen otros tantos desafíos a los que tenemos que enfrentarnos los profesionales, y para lo que es imprescindible contar con los recursos adecuados de formación y de servicios. En manos de los políticos está el garantizar que las bibliotecas públicas estén equipadas para proporcionar el máximo acceso a los nuevos recursos de información, que dispongan de los medios adecuados para mantener los servicios y con unos profesionales capacitados y en número suficiente para responder a las necesidades de sus conciudadanos.

Kalitatezko liburutegi publikoa dugu hiritarren aurrerapenaren bermatzaile

Etika zein ekonomia-krisialdi honetan, hauteskundeak ate joka ditugula, alderdi politikoak beren printzipioez gogoeta egiten ari direla, programak osatzen ari direla eta beren lehentasunak berriz aztertzen ari direla, liburuzainok gogorarazi nahi di(zu)egu kalitatezko liburutegi publikoaren garrantzia, aurrerapena bermatzeko bai norbanakoei bai komunitateari.

Gure xedeen artean ez dago manifestu berri bat idaztea, jarraibide berririk ezartzea, adierazpen berririk aldarrikatzea edo beste txosten bat gehitzea dagoeneko metatzen zaizkigunei -honetarako badauzkagu Europako eta nazioarteko hainbat komite entzutetsuk plazaratutakoak-. UNESCO, IFLA edo hainbat komite jakitun aipatzea oso ohikoa da gure herriko liburutegi-legeri orotan. Hala ere, asmo onak soilik ez dira aski helburuak lortzeko; baliabide egokiak esleitu beharra dago eta hauek lanean paratu.

Gure lanbide-esperientziak dio, eguneroko jardunean oinarriturik, liburutegi publikoek honako ekarpen hauek egiten dituztela:

- Erakunde kultural gisan, irakurketa -funtsezko bidetzat harturik-, sustatu eta aldarrikatu egiten dute pertsonen garapena eta sustapena ahalbidetze aldera.
- Berebiziko berdintzaile sozialak dira; izan ere, beren zerbitzuak herritar guztiei eskaintzen baitizkiete jatorri, adin, ekonomia-egoera edota hezkuntza-mailako bereizketarik egin gabe. Biblioteketan jende askok doan eskuratzen ditu bestela ordaindu ezin izanen lituzkeen baliabideak eta, hauek, behar-beharrezkoak dira ikasteko, trebatzen segitzeko, lana lortzeko edota lanean hobetzeko.
- Liburutegi publikoak integratzaileak dira eta komunitatea eratzen laguntzen dute; izan ere, adin, etnia, jatorri, sentsibilitate kultural eta linguistiko diferenteetako lagunak elkarrengana hurbiltzen dituzte-eta, elkarren arteko hartu-emanak, ikasketa eta laguntza bultzatuz. Nabarmentzekoa da liburutegi publikoek adinekoei, etorkinei eta premia bereziko pertsonari eskaintzen dieten laguntza.
- Herritarren mesedetan aritzen dira informazio eskuratzea ziurtatzen dietelarik -inprimatua zein digitala-, beren interesen aldekoena zein den aukeratzen prestatzen dituztelarik, eta ezagutza berriak -sendotze pertsonala eta espiritu kritikoa sustatuz- lortzen laguntzen dietelarik.

- Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriekin aritzea ahalbidetzen dute. Halaber, informazio-alfabetatzean zein digitalean laguntzen dute.
- Liburutegi publikoek gure hiri eta herrietako ondare kulturala zaintzen ere laguntzen dute. Horretarako, gure iragana, oraina eta etorkizuna hobeki ulertzeko nahian, informazioa bildu eta digitalizatu egiten dute, eta tokian tokiko egilek sorturiko lanak edota dokumentu historikoak gordetzen dituzte.
- Gure errealitatea adierazpen batere arranditsu batean laburbilduz, bertako liburutegi publikoak espazio fisikoa dugu non liburuzainok honako eginkizun hauetan aritzen garen: ezagutza, etengabeko prestakuntza eta informazioa eskuratzea errazten dugu; parte-hartzea sustatzen dugu, adibidez, irakurketa klub, poesia edo antzerki tailer, ikastaro ez arautu edota azoka txikien bitartez; erakusketa, lehiaketa eta ospakizunen bidez sorkuntza bultzatzen dugu; eta, halaber, bizikidetzaren batean giro abegitsu eskean etortzen direnei ere erantzuten saiatzen gara.

Etengabeko garapen teknologikoa eta premia sozial aldakorrak dira profesionalok aurre egin behar ditugun erronketako batzuk. Horretarako, nahitaezkoak ditugu prestakuntza zein zerbitzuak eskaintzeko baliabide egokiak. Politikarien esku dago biblioteca publikoen ahalmena bermatzea informazio baliabide berriak ahalik eta eskuragarrien paratzeko, zerbitzuak mantentzeko bitarteko egokiak eduki ditzaten eta profesional nahikoak izan ditzaten –bai trebakuntza aldetik bai kopuru aldetik- herritarren beharrei taxuz erantzun ahal izateko.